

ERRENTERIA / Papiroflexia eta idazkera txinatarra, liburutegian

Azaroaren 19ra arte egin ahal izango dira; abako tailerretan ere parte hartzeko aukera izango dute interesdunek

ERREDAKZIOA

Udaleko Kultura Sailak eta Udal Liburutegiak tailer berriak aurkeztu dituzte. Azaroaren 19ra arte egongo dira martxan, eta honako hauek izango dira: abakoa, idazkera txinatarra eta papiroflexia.

Herenegun aurkeztu zituzten tailer berriak Joxe Mari Burgos Kultura zinegotziak, Mari Jose Pascual Udal Liburutegiko arduradunak, eta Yang Yung idazkera txinatarren tailerra emango duen irakasleak.

Ekimen hori Eusko Jaurlaritzaren Munduko paisaiak kanpainaren barruan dago. Asmoa da herriko txinatarrak halako eskaintzak ezagutzera hurbiltzea, eta era berean, liburutegiko erabiltzaileak Txinako kulturaren murgiltzea.

Tailer guztiak Xenpelar Etxeko lehenengo solairuan (Haur Liburutegiaren azpian) izango dira, eta edonork parte hartu ahal izango du, hurrei, helduei zein ikastetxeei zuzenduta baitaude. Informazio gehiago nahi duenak liburutegira jo dezake.

Abakoaren gaineko tailerra Jose Rubiak emango du, eta eragiketa matematikoak tresna horrekin egiten irakatsiko du. Idazkera txinatarra, berriz, Yungek emango du, eta hizkuntza ezagutzeko lehenengo urratsak emango ditu. Azkenik, papiroflexiaren bidez, loreak, ahozapiak eta antzeko gauzak egiten ikasi ahal izango dute interesdunek.